

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2255

294/2018 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Toraxeko Kirurgiako Medikuko kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 171/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Toraxeko Kirurgiako Medikuko kategoriatik oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I. ERANSKINA

FAK. ESP. TORAXEKO KIRURGIAKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Ana Jesús Bustinduy Bascaran.
- Ordezkoa: María Luisa Merino Hernández.

Lehen epaimahaikidea:

- Titularra: José Miguel Izquierdo Elena.
- Ordezkoa: Rafael Rojo Marcos.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Naia Uribe-Etxebarria Lugariza-Aresti.
- Ordezkoa: Juan Carlos Rumbero Sánchez.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Juan Baltasar Casanova Viudez.
- Ordezkoa: María Deu Martín.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Joaquín José Pac Ferrer.
- Ordezkoa: Ana Gómez Martínez.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Iker Javier López Sanz.
- Ordezkoa: Juan Antonio Moya Amoros.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Florentino Hernando Trancho.
- Ordezkoa: Jordi Freixenet Gilart.

Idazkaria:

- Titularra: María Aranzazu Murguiondo Biain.
- Ordezkoa: María Iciar Olabarri Espiga.